

QUANTUM

EINSTEIN, BOHR

eta errealitatearen izaeraren inguruko
eztabaida handia



QUANTUM | Manjit Kumar

Albert Einstein-ek ez zituen onartu mekanika kuantikoaren ondorio batzuk, baina oraindik ez da frogatu ondorio horiek faltsuak direnik. Niels Bohr-ek, aldiz, defendatu egin zituen, eta eztabaida luzeak izan zituzten. Bi genioen arteko eztabaidak ulertzeko liburu egokia da hau.

Eztabaida luze horrek drama, tragedia, irrika, ustekabeko gertaerak eta ekintza heroikoak ditu, eta Einstein, Bohr eta beste zenbaiten nortasunak ere erakusten dizkigu. Pauli-ren adimena eta umore txarra erabakigarriak izan ziren; Bohrren irmotasuna eta lotsa, berriz, ezinbestekoak; Einsteinen irudikapenak eta askatasunak polemika bizirik iraunarazi zuten, eta abar. Horiez gain, Heisenberg, Schrödinger, Dirac, Compton, De Broglie, Sommerfeld, Lorentz, Boltzmann, Rutherford, Uhlenbeck, Goudsmith, Bell, eta abarren izaerak ederki jasotzen ditu liburuak, eta haien erretratu zuzena egiten du.

Ez da eduki zientifikoko edo dibulgazio zientifiko hutseko liburua, nahiz eta informazio asko dagoen mekanika kuantikoari buruz. Liburu historiko edo biografiko baten antzera antolatuta dago: pertsonaia (aditu) bakoitza zehatz azaltzen du, bakoitzaren izaerak eragina izan baitu aurkikuntzaren garapenean edo aurkikuntzan bertan.

Z izpiak zientzia-dibulgazioko bilduma bat da, 16 urtetik gorako irakurle ororentzako liburuz osatua, zientziaren irakurketa argigarria, arina eta atsegina bultzatzeko sortua. Eskuartean duzun hau bildumako hirugarrena da.

www.elhuyar.org

ISBN 978-84-92457-66-3



9 788492 457663



Gipuzkoako Foru Aldundia



ELHUYAR
edizioak